

SORGINXULO LESAKAKO KULTUR-BILGUNEA

37. BILERA AKTA

EGUNA: URTARRILAK 13, LARUNBATA
ORDUA: 9:30-11:00
TOKIA: HARRIONDOA KULTUR ETXEA – ALASTA GELA

BERTARATUAK

GURE ARRANO ELKARTEA
OTXOGORRIENEA GURASO ELKARTEA-TANTIRUMAIRU IKASTOLA
BORTZIRIETAKO BERTSO ESKOLA
IRAIN GURASO ELKARTEA
GEROA BAI
IRAIN ESKOLA
MAIRU ANTZERKI TALDEA
SAN FERMIN JUBILATU ELKARTEA
TANTIRUMAIRU EUSKAL FOLKLORE TALDEA
S.C.R.D. BETI-GAZTE K.J.K.E.
LESAKAKO ABESBATZA
GILTZARRI ABESBATZA
MUSIKA ESKOLA
MUSIKA BANDA
LESAKAKO SOINULARIAK
TRIKITIXA ELKARTEA
TXISTULARI TALDEA
EH BIDU TALDEA
ARKUPE PILOTAZALEEN ELKARTEA
MIGUEL RODRIGUEZ YANCI

AINTZINAKO AKTA ONARTZEA

Onartzen da.

2024. DIRULAGUNTZAK

2024rako partida igo da, emanaldien partida 38.500 eurotara jeitsi da eta diferentzia dirulaguntzetara pasa da, beraz kultura dirulaguntzetara 38.500 euro bideratuko dira.

Proposamen batzuekin ari da udala emanaldien inguruan, Goazen, Miñan, Antton Telleria, Alkaiagan ere ekitaldi bat eraman nahi da...

Pascual Aldaveren inguruko proiektua azaltzen da. Nafarroako Gobernutik dirulaguntza eskatu da, oraindik ez dago berririk. Proiektu honen barruan otsailaren 3an piano emanaldi bat badago, hau bai edo bai eginen da emanaldi bat bezala bino dirulaguntza ez bada lortzen proiektu barruan dauden bertzelako ekimenak ez dira bideratuko.

2024. SANFERMINAK

Proposamenak bidaltzeko momentua dela aipatzen da. Aurten uztailearen 5etik 10era izanen dira. Sekoa txozna batzordearekin itxi da eta 10erako Puro Relajo hitzartua dago.

DJ Xaibor, Fifi eta Fefa....proposamen bezala ateratzen dira.

ANDRA MARI EGOITZAREKIN KOLABORAZIOA

Eragileen emanaldiak Andra Mari Zaharren egoitzara eramatea proposatzen da, hilabetero behin edo zerbait eraman hara. Sanferminetan ere kalejiretan egoitza kontutan hartzea proposatzen da, txarangari ere aipatuko zaio. Aunitz eskertzen dute hara eramatea eta baita ekimenetan parte hartzea, ahal den neurrian (Harriondoako emanaldietara bertakoak eraman bolondres taldearekin koordinatuz....eskolako eguberrietako jaialdian horrela egin zen eta izugarri eskertzen dute).

Plangintza proposamen bat eginen da eta helaraziko da.

TXOKOBIKO-MUSIKA EKIPOA

Udalak ekipo bat erosiko du Txokobikon edukitzeko. Dantza taldekoekin, Martxelekin...aipatuko da ea zer motatako ekipoa beharko zen.

KEZKAK ETA GALDERAK

Dirulaguntzak 2024-Eragileekin bilerak – Noiz? Urtarrila bukaera, otsaila hasiera aldera egiteko intentzioa da.

Erraldoiak – non? – Leku bat Txokobikotik Komentura ibiltzen dira. Txokobikon emanaldietarako hor egotea ez da egokia ikusten.

Beheko solairuko ezinduentzako komuna, ez da oso egokia ikusten, baxuegia, taparik gabe dago...

Beti-Gazte - Ekaitz Bertiz, Sunbillako zinegilearen emanaldiak – Aipatzen da udalara zuzendu zela bino ez zegoela oso garbi eskeintza zen edo zer zen. Bertzalde Lesakako antzokiak baditu baldintza batzuk, solastu zen bino denboraz ere justu eta ez zen egin.

Urtarrilaren 20an, larunbata, soinularien emanaldia, agendan, web gunean sartu.

Urtarrilaren 21ean, igandea, gaiteroak goizean.

Korrika martxoaren 23-24 tartean pasako da.

Ikastolako guraso elkarteak aipatzen du zinema emanaldiak berriz egiteko intzertzioa dutela. Hala ere pelikulak ez dira oso berriak.... Enekok aipatzen du UEMAtik lanean ari direla hitzarmen bat egiteko zinemaren inguruan, euskara emanaldien inguruan (Goazen. Primeran plataforma)....

Hurrengo bilera otsailak 24.